

EGA AZTERTZAILEAK

Azterketa Batzorde Ofizialeko (ABO) kideak Hezkuntza sailburuak izendatzen ditu, bi urterako. Epea amaitzerakoan, izendapena berriz egin daiteke, beste bi urterako, behar beste aldiz¹.

Aztertzaile izateko bete beharreko baldintzak

- lizentziaduna edo diplomaduna izatea
- EGA agiria edo C1 mailako euskara-agiri baliokidea izatea
- euskararen irakaskuntzan eta azterketen ebaluazioan jarduna izatea

Aztertzaile izateko aintzat hartuko diren jakintzak

- bere lurraldeko euskalkia(k) ondo jakitea
- informatikan erabiltzaile-mailan gutxieneko prestakuntza izatea. EGako lan asko (prestakuntza-saioak, proba idatziaren zuzenketa eta abar) baliabide informatikoak erabiliz egiten dira.
- euskara-azterketen eta, oro har, hizkuntza-azterketagintzaren berri izatea: Europako Erreferentzia Marko Bateratua, ALTE, euskara-agirien baliokidetzaren sistema

Alderdi hauek guztiak *curriculum* batean zehazki azaldu behar ditu aztertzailegaiak.

Harremanetarako helbidea: huisega@euskadi.eus

¹ Hala finkatuta dago 1982ko irailaren 20ko Aginduan (EHAA, 1982ko azaroaren 6koa)

Aztertzaileen eginkizunak

- proba-egunetan parte hartzeko deiei azkar erantzutea. Dei gehienak norberaren lurralderako izaten dira.
- jasotako deien arabera, EGAko proba-egunetan begiraletza-lanetan parte hartzea, kontrol-fitxa betetzea eta azterketa-aleak kontrolatzea: azterketariak erabiliak eta soberakoak
- azterketa idatziak aurrez zehaztutako epean zuzentzea, kalifikazioak eta oharrak aplikazio informatikoan sartzea, eta aktarekin batera azterketa-materialak administrazio-gunera itzultzea
- azterketa idatzien zuzenketak egin ondoren lan-bileretan parte hartzea
- EGAREN ahozko proba-egunetan ahozko azterketak kalifikatzea eta ebaluazio-fitxak betetzea
- azterketa-materialak prestatzea, Zuzendaritzaren (ABOZ) eskariari onespena emanez gero
- ebaluazio-irizpideak zehazteko prestakuntza-, bateratze-saio eta lan-bileretan parte hartzea
- oro har, EGAREN funtzionamendu onerako beharrezkoak diren ekintza akademikoetan parte hartzea
- ALTEren jokabide-kodea betetzea
- Aztertzaile-lanen ondorioz jakiten dena isilpean gordetzea, azterketa-materialak babestea eta azterlektutik inola ere ez ateratzea edo kopiatzea.